

# “Errenteriar idazleen historia egiteko lehengaiak: Errenderi aba (1881-1916)”


ELIXABETE PEREZ GAZTELU

José Ramón Gregorio Astibia Etxegoien, *Errenderi aba*<sup>1</sup> (*padre Raimundo María de Rentería*<sup>2</sup> erdaraz), aita kaputxinoa hil zela 100 urte betetzen dira aurten, 1916ko ekainaren 10ean zendu baitzen Tuterako kaputxinoen komentuan. Gazterik hil zen Astibia; 34 urte zituela.

Jaiotzako nahiz heriotzako mendeurrena ez da aitzakia makala izaten gizartean era bateko edo besteko itzala utzi dutenak ahanzturaren zokotik berreskuratzeko. Errenderi abak, behinik behin, utzia du arrastoa euskal letren soroan. Honelaxe aurkeztu zuen Koldo Mitxelenak *Rentería* aldizkarian “Los renterianos y la literatura en lengua vasca” 1952ko lan eredugarrian:

*Su afán de perfeccionamiento y superación ha dejado honda huella en la poesía vasca. A los que lo han leído, y sobre todo a los que hemos oído hablar de él, nos parece casi que murió consumido prematuramente por la llama afectiva de su corazón.*

Zaharrak berritzeko besterik ez bada ere, komeniko da hasteko Errenderi abaren bizitzaren gainean zerbait esatea. Beharrik, badago, gainera, nondik hartu<sup>3</sup>.




Erramon Astibia Etxegoien Errenderi abak Miren eta Pantzeske arrebei biodalitako agurra, "Gora Jel!" idatzia duela

1 *Aba* hitza "aita" adierazteko erabili izan zuten garai batean. "[...]Se trata, en conclusión, de un "término" que no ha llevado el asterisco que debía llevar, aunque ni siquiera se trata de algo que tuviera una existencia prehistórica: en otras palabras, por lo que sabemos, nunca ha existido nada semejante. Sin embargo, AG lo usó como primer elemento de los neologismos *abenda*, *aberri*, *abixen* (v. *abizen*), como sinónimo de *asaba* "antepasado". [...]2. (Bera). Padre (tratamiento eclesiástico). "Antepasado, padre, Padre. *Albontsa Aba*, el P. Alfonso" Bera. Tr. Parece que es Arana Goiri quien introduce su uso. Lo emplea antepuesto al nombre (tbn. Enbeita), al contrario de la tendencia posterior a posponerlo". *Orotariko Euskal Hiztegia*.

2 "Recurro a la *Bibliografía de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón*, del Padre Felipe de Fuenterrabía, y encuentro los siguientes datos: Ramón de Astibia y Echegoyen (en Religión el **Padre Raimundo de M.<sup>a</sup> de Rentería**) nació en 1881 y falleció en 1916 (fecha en que nació en Rentería otro escritor, José Antonio de Loidi Bizcarrondo)". (letra lodia gurea). Cortazar, N. (1966) "Padre Raimundo de Rentería", *Cien autores vascos*. Donostia: Auñamendi (apud Perez Gaztelu, Elustondo (2003)).

Ramon, Erramun, Raimundo, Erraimunda izenak erabili izan dituzte gizon beraz aritzeko.

3 Errenterriako Udalak eskatuta 2003n egin genuen lanean jasota daude erreferentzia ugari (Perez Gaztelu, Elustondo, (2003). *Erramon Astibia "Errenderi aba" (1881-1916). Idazlanak*. Errenterria: Errenterriako Udala). Euskarri digitalean besterik ez zen argitaratu. Mendeurrenaren karian, udalaren webean izango du babes eta hedaleku.



**LA FANDERIA.** - Fresco retiro en las calurosas tardes de verano. - Meta de estivales paseos, por entre huertas, a orillas del río. - En "Esticho", media escuela bañándose: estudio ambulante de anatomía osteológica. - Este, que tiritita, aquél, que muestra el paso de legión de pulgas por sus exigüas carnes. - En el camino, al atardecer, rezagadas parejas de enamorados. - Bajo la umbrosa fronda de la chopera, el campamento de húngaros caldereros; romántica estampa del pasado siglo. - Y allí, a la puerta del molino, entre el ruido de los batanes y el murmullo del agua, el viejo soldado de Santa Cruz, contando sus hazañas de aquellos sus buenos tiempos. — Kirolec.

REVISTA OARSO 1931

Astibiatarren sortetxea. Gurasoak Fanderiako errotariak ziren.

## Bizitzako zertzeladak

1881eko azaroan jaio zen Ramon Astibia. Zein egunetan jaio zen jakiteko ohiko lehen mailako bi iturrietara joz gero bi erantzun topatuko ditu bila dabilenak: azaroaren 17an jaio zela dio bataio agiriak eta 18an izan zela, berriz, epaitegikoak. Agiri ofizialen arteko bat ez etortzeak oraingoan, zorionez, badu ordezkorik; lehen-lehen mailako ahozko giza iturria: Pantzeske Astibia Etxegoien, Erramon Astibiaren arreba<sup>4</sup>.

Izan ere, Pantzeske Astibia izan zuten berri-iturri bai Xabier Olaskoaga zenak 1981eko *Oarson* argitaratu zuen "Errenteria'tar Erramun aba. Olerkari eta lekaide" lana prestatzeko,

*Aita Eramunen nortasun berezia ikusiaz, bere izaeraren berri jakin naiean, bere arreba Pantzeskerengana jo det. Nor bera baño berri emaille obera...?*

<sup>4</sup> Ezin dugu saihestu Pantzeske Astibia *Onintze* olerkariaren gaineko aita Onaindiaren hitzok hona ekartzeari:

"Bera zan Errenderi Abaren arreba, ez nolanaikoa. Guraso gabe gelditu zan gazte xamar zalarik. Erropa denda euki zuten. Urduri ta zori-zale bait zan, Bilbo-ra aldatu zan eta itzaldi aberkoiak emateari ekin zion, Euzko-Gastedi-ko idazkari izanik. *Jagi-Jagi*-n idazten zuen. Ba-ditu olerkiak "Onintze"-z izenpetuta, *Euzkerea*-n eta nire poesi-bilduma *Milla olerki eder*-en bi beintzat. Gerra amaitzean Frantzia-ra jo zigun, andik Barzelona-ra ta azkenez urte mordoaz erbesteratua emanik, 1970-an Errenteri-ra biurtu zan ezkontuta. Emakume jatorra, euskal idazle ta olerkari fiña, aipamen au merezi duela uste dut bere anaiaren liburu ontan". (Onaindia 1986 in Perez Gaztelu, Elustondo (2003: 231). *Onintzeren* olerki batzuk (13 zehazki) jasoak daude Julen Urkizaren datu base erraldoi (digitalizatuan): Ik. <http://urkiza.armiarma.eus/cgi-bin/urkiza/EBMODEGI.pl?Letra=A&Egile=976>

<sup>5</sup> In Perez Gaztelu, Elustondo (2003: 229-294).



bai Santi Onaindia karmeldarrak 1986an idatzi bai, baina 2003a arte<sup>5</sup> argitaratu ez zen *Jose Ramon Astibia. Aita Errenderi kaputxinoaren Olerkiak* saiakerako atal batzuk osatzeko. Astibiaren bizitza laburraren berri jakiteko ezinbestekoak diren bi lan horietan Olaskoagak eta Onaindiak diote azaroaren 17an jaio zela. Hori har daiteke, bada, Erramun Astibiaren sorteguntzat. Elizako dokumentuari arrazoia eman behar, hortaz:

*En la Villa de Rentería, correspondiente á la Provincia de Guipúzcoa, obispado de Vitoria, el día diez y ocho de noviembre de mil ochocientos y ochenta y uno, yo Pbro. José Ramón de Irigoyen, cura propio de la Parroquia de S<sup>ta</sup> María de la Asunción de esta villa bautizé solemnemente á un niño, que nació a las dos de la tarde del día precedente, hijo legítimo de José Fructuoso de Astivia, natural de Rentería, Molinero y de Sebastiana Eche-goyen, natural de Oyarzun, mis feligreses: siendo abuelos paternos Vicente María Gregorio de Astivia, ya finado y Josefa Francisca Eduarda de Sarvide, naturales de Rentería, mis feligreses; maternos, Pedro Eche-goyen y María Josefa Aldaco, naturales y finados de Oyarzun. Se le puso por nombre **José Ramón Gregorio**. (letra lodia gurea).*

*Pantzeske* arrebak Olaskoagari esan zion Fanderiako errotariak, Jose eta Sebastiana gurasoek ("casado, molinero" eta "casada, molinera" zehazten du epaitegiko jaiotza agiriak), hamalau seme-alaba izan zituztela<sup>6</sup> eta bera, *Pantzeske*, zela 1981ean bizi zen bakarra. Zaharrena zen Ramon; gurasoak ezkondu ziren urte berean jaioa. 1881eko urtarrilaren 25ean, Oiartzunen, ezkondu zirela jasotzen du ezkontagiriak.

*Errenderi aba* umetan nolakoa zen jakiteko 1928ko *Rentería* urtekarira jo daiteke, eskolakide izan zuen *Iturriak* haren berri ematen du eta:

*Panderían bizi gera: nos decía en la escuela aquel mocete potxolo-potxolo, algo kopet-illun pero muy despejado y sobre todo muy vasco que con su hermanico Julián (q. e. p. d.) venía todos los días puntual a la escuela. Llevaba en su sangre, en sus venas en su alma todo el caracter, psicología y temple que no los perdió ni en su postrer momento. Genio y figura hasta la sepultura. No era manco, no, el Ramoncete. (Iturria 1928).*


*Iturriak*, antza denez, bertatik bertara ezagutu zuen Erramun Astibia, Errenteriako eskolan ez ezik Lekarotzen ere ikaskide izan baitzuen.

12-13 urterekin joan zen Astibia Lekarozko komentura kaputxino artean ikastera eta 14 zitueneko kaputxinoek begiz jo zuten, ordenakide izateko ikasketetan bultzatzeko.

Ikasle argia omen zen, arrunt matematika zalea eta baita Filosofia eta hizkuntza gaietara emana ere. *Iturriaren* arabera, oso behatzailea zen, bakar eta isilzalea (*taciturno* dio), ikasketak gustuko zituen, baina, hala ere, Errenteriako bizitzaz ahanzten ez zena:

*No penséis, no, que sus estudios fueran óbice ni fueran el menor obstáculo para sentir a cada momento la nostalgia de su pueblo natal; antes al contrario, como la ausencia es aire que apagase el fuego corto y enciende el aire, giraba el tema de sus conversaciones alrededor de la Zuardia, plaza de verduras, fandería, Magdalenas, maisu zarra y maisu txikia, etc.; no en vano tenía por inseparables compañeros al vivaracho y nervioso Garaño, hoy P. Pedro de Rentería, renteriano y vasco eminente, versado en toda clase de conocimientos y al que esto escribe y relata. (Iturria 1928).*

6 Guk hamahiru Astivia Eche-goyen senideren bataio-agirien berria aurkitu dugu Donostiako gotzaindegiaren webean ([www.mendezmende.org](http://www.mendezmende.org)). 1881-11-18: José Ramon Gregorio [*Errenderi aba*], 1883-01-28: José Julian, 1884-06-16: Esteban Maria Modesto, 1886-10-04: Román Cándido, 1888-05-27: María Luisa Trinidad (heriotza-ziurtagiria: 1888-08-21), 1889-09-10: Pedro Nicolás, 1890-09-16: Juan José Cornelio (heriotza-ziurtagiria: 1891-07-19), 1892-02-16: Elías Isaías Jeremías (heriotza-ziurtagiria: 1892-06-27), 1893-10-19: Lucas Román (heriotza-ziurtagiria: 1893-11-20 [hemen Lucas Ramón jartzen du]), 1895-10-25: María Margarita (heriotza-ziurtagiria: 1896-05-15), 1897-09-02: Ana Maria, 1899-04-04: Maria Ysidora Ricarda (heriotza-ziurtagiria: 1899-06-21), 1900-04-09: Francisca Maria Dionisia [*Pantzeske*, alegia]. Heriotza-ziurtagiri gehiago ez dugu aurkitu elizako artxi-bo digitalean: 1900. urtea arteko datuak besterik ezin dira horrela eskuratu.



Errenderi abaren lan guztien bilduma azala. Perez Gaztelu, Elixabete (ed.) (2003)

*Ayalak*<sup>7</sup> 1935ean argitaratu zuen *Olerkiak* Errenderi abaren poesien bildumako hitzaurrean dio Lekarozko komentuko giroa aski "integrista" eta Euskal Herriaren eta euskararen kontrakoa zela. Salbuespen bakarra Etxalar aita zela. Haren bitartez iristen zitzaizkien aldizkari euskaldunak ikasleei. Etxalar aita eta euskal bibliografian oso garrantzizkoa izan den Ibero aita ere bai, Onaindia aitak jasotzen duenez:

*Egia duzute, ikastaroan, Etxalar Aita naparrak utzita, ba-zutela orduko ikasle gazteak, batzuk beiñik-bein, Azkuek Bilbo-n ateratzen zuen Euskalzale ta Donostia-ko Gipuzkoarra euskal asterokoak irakurtzeko egokitasuna. Aita Errenderi-ri bigarren au zitzaion oso begiko: lau orrialde zeuzkan, euskeraz eta erderaz; larunbatero kaleratzen zan, eta zeazki jarraitzen zion Arana-Goiri-ren irakatsiari. [...] Lekarotz-en irakasle zegoen gaiñera Ibero Aita, garai artan doi-doi Ami Vasco liburuxka idatzi*

*zuena. [...] Ibero Aita*<sup>8</sup> *au Erramon gazteak ere irakasle euki zuen, il baiño amar bat urte lenago; Aritmetika ta Algebra irakatsi zizkion, baiña olerkariak maiteago zituan poetak Aritmetika idazleak baiño. Zebaki-arloan ere, orraitio, etzan ikasle meko gertatu. Elizkarrera ondoren, beintzat, bere bizitza ez luzean, 1908-tik 1916-ra, Aritmetika ta gai onen birako zerak azaltzen ibilli zan Lizarra-n eta Lekarotz-en. (Onaindia in Perez Gaztelu, Elustondo 2003: 230).*

19 urte zituela, eskaintza egin bezain laster<sup>9</sup>, Madrila bidali zuten, El Pardoko komentura ikasketak burutzera. Apaizgoa 27 urterekin hartu zuen, 1908ko abenduaren 19an, Madrilen bertan. Meza berria handik egun batzuetara egin zuen, 1908ko abenduaren 25ean, Hondarribian, Amuteko kaputxinoen elizan. Arestiko Onaindiaren hitzek dioten bezala, Lizarrako komentura bidali zuten geroxeago, irakasle. Tuteran hil zen biriketako gaixotasun batek jota 34 urte zituela.

7 Tomas Etxeberria Elosegi, Elduainen jaioa (1882-1953). Errenderi aba bezalaxe, kaputxinoa. Lekarotzen aldi berean bizi izan ziren biok. [http://www.eresbil.com/fmi/xsl/Musikaste/eus/browserecord\\_compositor\\_aa.xsl?-lay=Musikastegeneral&ID\\_BIO1=EEELD001&-find=-find](http://www.eresbil.com/fmi/xsl/Musikaste/eus/browserecord_compositor_aa.xsl?-lay=Musikastegeneral&ID_BIO1=EEELD001&-find=-find)

8 "Ebangelista Ibero, Lekarozen 1897an apaiztua, izan zen Lizarrako ikastetxearen zuzendaria zenean *Ami Vasco* 1906an argitaratu zuena. Abertzaletasunaren ikasbidea, hain zuzen! Baina Aita Ibero erbesteratu zuten Hijarko komentura eta han hil zen 1909an, 36 urte zituenean". (Arana Martija, J. A. (2001). *Jose Antonio Zulaika. Aita Donostia*. Bidegileak. Eusko Jaurlaritza). [http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/105\\_zulaika.pdf](http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/105_zulaika.pdf)

9 "1901-eko otsailaren 15-ean jantzi zuen, pozez beterik gero, urrengo urtean egun berean, ots, 1902-ko otsailaren 15-ean profesatxikia egiñik. 1905-eko martxoaren 19-an eman zioten profesia nagusia" (Onaindia in Perez Gaztelu, Elustondo 2003: 230).

## Kaputxinoa, abertzalea, olerkaria

Elduaienek eta Onaindiak diote herri-minak eramane zuela etxean bertan edoskia zuen eta barren-barrenean ernatzeko bidean zeukan abertzaletasunaren hazia<sup>10</sup> —Arana Goiriren jarraitzaile sutsu-sutsua zen— lehenbizi Madrilen loratzera: ikasle euskaldunak bildu eta Euskadiren eta euskararen, euskal letren alde lanean jarri zituen. Euskal aldizkariak irakurtzen zituen; EAJren *Gipuzkoa* zuen batez ere begiko. Badirudi, hortaz, idazteko grinaren eta ideologiaren arteko ezkontzak, fede erlijiosoak guztia estalita, bultzatu zuela idaztera; bihotzetik isurtzen zitzaizkion olerkiak ez ezik, artikuluak ere plazaratzera.

1909. urtean argitaratu zuen, guk dakigula, lehen lana, eta 1914an azkena (hil ondoren ere argitaratu dira gehiago); 5 urtetsutan 40 inguru olerki (aski luzeak batzuk), euskaraz guztiak, eta 11 saiakera antzeko artikulu, gaztelaniaz, erlijioari eta euskararen azterketari eskainiak, eta ez oso aldeko giroan, gainera.

*1911g. Oñilako 31.an*

*Azkue.tar Dunixi jaunari.*

*... Eskartxo bat eskatzera natorkizu. Nere idazkunak Gipuzkoa-n agertu ziranetik onuntz ez digute eman nai **Gipuzkoa**-rik. Aitzaki arekin gebendu edo galerazi zuen Iruñan bizi dan Aba Nagusiyak, esanez emengo Aba Lendakariyari ez utzitzeko irakurtzen **Gipuzkoa**-k.*

*Ala ere, nondik edo andik, orain arte gureganatu dira gure ingi [paper] maitiak. Baño orain ezin zaizkigu sartu, eta nola edo ala sartzeko asmua artu det; neri galerazpenik ez dit inork egin-ta. Beraz ez bidali zenbaki bat bakañik ere etxe onetara; bidali era onetan zuzenduta... [Errenderi aba]*

Horregatik erabiltzen omen zituen *Errenderi*’tar *Erraimunda Aba*, *Errenderi Aba*, *Errenderitar Erramun Aba*, *Errenderi*’tar *Erraimunda Aba*, *Errenderi*’tar *Erramon Aba* *Buruñurduna*, *Erraimunda*, *Ramón de Rentería*... izengoiti gardenen ondoan beste hauek ere lanak sinatzeko:

*Aya, Buruñurdun bat, E., Fanderiya, Panderi.tar, Sarbide, Argitzale, Gabiola, Arrobi*’tar *Danel, A*’tar *D.*

Olerki-gai nagusiak erlijioa, euskara eta aberria dira. Erlijiozko batzuei aita Donostiak eta Tomas Elduaienek musika paratu zieten. Partiturak Eresbilen kontsultagai daude.

Izan bitez Koldo Mitxelenaren hitzok Astibia olerkigilearen soslai modukoak:

*La vieja nostalgia, que viene al mundo con nosotros y nos acompaña hasta el último momento, el anhelo de paz, el cansancio de las luchas y contradicciones de este largo destierro. Casi se siente físicamente el impulso con que el alma, la pobre golondrina, quiere romper, por fin, y arrancar el vuelo;*

Orra, Josu on-ona,  
enara gaxua,  
ludi ontan min-gaitzez  
gutziz ondatua.  
Orain ega-egaka  
Zuganantz dijua:  
ez duzu edatuko  
Zuk zure besua,  
ene Josu maitia,  
ene Jaungoikua?  
Enara dardaiz gabe  
dago sendotua,  
Zu zeralakoz, Urtzi,  
oso urrikaltsua.  
Baño ludi zitalez  
oi, zein nekatua!  
Igesi duanari  
ukatu lekua?  
Ideki, Jauna, atiak,  
ideki leyua!

Onaindiak arestian aipaturiko 1986ko lanean olerkien azterketa xehea egin zuen, batez ere alderdi metrikoari begira; hobeto esan, “poeta bikain onen lanai, ots, oarkizun labur batzuk erantsi, ark darabilzkin gai, egitura, aditz berezi ta itz ez arruntai zeaztasun batzuk ipiñi”.

<sup>10</sup> Aita Errenteriako lehen abertzaleakoa izan omen zen (Koldo Mitxelenaren aita bezala). *Euzkadi* elkartearen sortzen lagundu zuen eta zuzendaritzan ere egon zen, hil zen urtean behintzat, 1904an. Pedro eta Pantzeske senideak ere abertzale porrokatuak izan ziren. Euzkotarren Anaitasunean (Abertzaleen “sociedad de socorros mutuos” delakoan) parte hartu zuen eta 1928an “Escuela Vasca” bat irekitzeko saioa izan zenean tartean zen, babesle moduan. Mikel Zabaleta lagunari zor dizkiot Astibiatarren gaineko datuok. Eskerrik asko.

## Prosagilea

Hamaika (‘hamar eta bat gehiago’) artikulua argitaratu zituen Astibia bizi artean *Gipuzkoa* (1913a arte) eta *Euzkadi* aldizkarietan, 1910etik 1914ra: “Yo envidia”, “Amor patrio”, “Un punto etimológico y alguna cuestión adyacente”, “La lengua nacional”, “Las lenguas y el derecho canónico”, “En defensa del euzkera”, “La muerte del euzkera”, “Comentarios”, “Pro euzkera”, “Euzkerafobia”, “Estudio genético y evolucionar del euzkera”.

Prosazko lan bat ez beste guztiak izengoiti “ilunak” erabilita sinatu zituen; arestiko atalean aipatutako *Sarbide*, *Argitzale*, *Gabiola*, *Arrobi’tar Danel*, *A’ tar D*. Litekeena da izenak aukeratzean eragina izatea lantzen zituen gaiak (erlijioso eta politikoak). Euskararen azterketari hertsia go eskaini zion “Estudio genético y evolucionar del euzkera”, *Euzkadin* 1914an argitaratua, sinatzeko bakarrik erabili zuen Ramón de Rentería O.M.C. sinadura gardena.

Izenburuek ispiatzen duten bezala, olerkigintzan landu zituen gai berak jorratu zituen hitz lauz, baina erdaraz: abertzaletasuna, erlijioak blaituta, eta euskararen (garai bateko modu bateko) azterketa —*euzkeralogia*—, hau ere fedea lagunduta. Platon (“herri-etimologiaren” aitzindaria<sup>11</sup>), ildo bereko Astarloa eta, ororen gaitetik, Arana Goiri “el gran Patriota, el Rey de los euzkerólogos, el Príncipe de los euzkerógrafos, el ejemplar de los euzkos, el genio de nuestra raza” gidari dela.

Maitasun-miresmenok, hala ere, ez zuten eraman “euzkeralogoen erregeak” esandako guztia itsu-itsuan onartzera. Bere “zera” badute eta, ekar ditzagun Ramón de Renteríaren hitzok:

*Un límite hay que oponer a esta doctrina  
[euskarak ez duela zertan beste hizkuntze-*

*tatik ezer hartu] por el lado de las fronteras que ideológicamente no son de Euzkadi, y es: que un pensamiento peculiarmente extraño debemos expresar, aun hablando euzkera, con el nombre o nombres extraños con que son designados en sus respectivos países. Así, el lama de Tartaria, los bramines de la India, los bonzos, los guardiaciviles, gobernadores, carabineros..., se dirán en euzkera: **lama, brakminak, bonzuak, guardiazibilak, karabineruak...** (Ramón de Rentería, 1914, “Estudio genético...”).*

Azpimarratzekoa da Astibia —*Jautarkolek* eta beste hainbatek bezala— kezka bizia agertzen duela euskarak elizan ere, elizako bizitzan ere bere lekua, leku duina, izan behar duela eta (“Las lenguas y el derecho canónico” lekuko).

## Idazleen historiako bultzada

Lanerako bultzagari izateko ere balio behar lukete mendeurrenek. Jose Ramon Astibia Etxegoien, *Errenderi aba*, berreskuratzea arrazoi egokia izan daiteke pixkanaka osatzen —emakumeak ere tartean dira!— eta ikertzen joateko errenteriar idazleen historia: Errenderi abaren garaikideak, XIX. mende bukaera eta XX. mendearen hasiera aldean jaiotakoak, ez dira desgokienak egin dagoenaz baliatuta aurrera egiteko: Juan Ignacio Uranga Berrondo, antzerkigilea (1863-1934), Joxepa Antoni Aranberri Petriarena bertsolari eta bertso-idazlea (1865-1943), Enrike Elizetxea Arrieta, genero asko landu zituena (1873-1947), Ramon Illarramendi antzerkigilea (1879-1927), *Jautarkol* idazle eta itzultzailea (1896-1971), Pantzeske Astibia, *Onintze* olerkaria (1900-1987)...

<sup>11</sup> Hitzen jatorria azaltzeko itxuraz antzekoak diren hitzen esanahiak lotzen dira ipuin-mito-ustean oinarrituta. Esate baterako, Isidoro Sibiliakoak bere etimologietan egindako hau beste askorena artean: *mors* (‘heriotza’) eta *morsus* (‘kosk egitea’) lotuta daude Paradisuan Ebak sagarrari kosk egitean mundura heriotza ekarri zuelako. Etimologia egiteko modu sasizientifiko honek arrakasta handia izan zuen (du?) hizkuntza askotako hitzen historiaren “azalpenean”.